

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKURKETA-PLANA KOMUNIKATZEKO ESTRATEGIA

# 2



## EAEIPren OINARRI DIREN SEI IDEIAK

EAEIPk lanerako sei ardatz ezartzen ditu:

- Jakintza eskuratzeko oinarrizko tresna da irakurketa. Irakurketa-plan hau abiarazteko, kalitatezko irakurketaren presentzia hobetzea eta hedatzea xede duten proiektuak gauzatu behar dira, hori funtsezko oinarria baita irakaskuntza-sistamarako eta lanarekin edo helduen hezkuntzarekin lotutako prestakuntzarako. EAEIPk lehentasun osoa ematen dio **“ikasteko irakurtzea”** helburuari.
- Egungo ekoizpen-ereduak industria teknologikoa du ardatz, eta horrekin lan egiteko, informazioa sortu, banatu eta ustiatu behar da. Balio erantsi handiena duten sektoreetako enpresek irakurmena eta idazmena oso garatuta duen giza kapitala eskatzen dute. Irakurketa-indize altuenak dituzten herrialdeetan daude ekonomia dinamikoenak eta aberastasun-maila altuenak sortzen dituztenak. **Irakurketa berrikuntzarako tresna dela** azpimarratzen du lanerako bigarren ardatzak.
- EAEIPk irakurketaren ikuspegi garaikidea lantzen du, eta irakurtzeko ekintza jarduera sortzailatzat hartzea dakar horrek. Irakurle garaikideek, irakurle gazteenek bereziki, belaunaldi digitalekoek, ulertzen dute irakurketa bi norabidetako prozesua dela, jarduera aktiboa, irakurgaiaren gainean oharra idatzi, etiketak jarri edo irakurgai osatzen lagundu dezaketelako. Horrela ulertutako irakurtze-ekintzaren irismena zabaltzea nahi dugu euskal gizartean, eta horrek gizartearen gaitasun **sortzailea** areagotuko luke.
- 
- Gizarte irakurle batek kalitatezko **alfabetatzearen** indize altuenak lortzeko ahaleginak egiten ditu. Pentsatzekoa denez, EAEIPk sustatu nahi duen alfabetatzea ez da mugatzen testu idatzi bat deskodetzeko gaitasunera, jarduera zorrotzagoa eta konplexuagoa da. Informazioa eskuratzeko eta partekatzeke aukerak globalizatu direnez, alfabetatzeak izaera irekia du gaur egun: alfabetatzea da informazioa aurkitzen jakitea, iturriak aukeratzea, horien ezaugarriak ezartzea, iturriak sailkatzea, ahal den hizkuntza-kopuru handiengan ulertzea horiek, espezializazio teknikoko arloetan zer garrantzi duten jakiteko gai izatea eta horiek modu arrazionalen erabiltzeko gai izatea.

- EAEIPk proposatzen duen alfabetatze-moduaren ondorioz, irakurketaren ikuspegi sozializatzaile bat sustatzen da. **Irakurketa partekatu behar da** gainerako proposamenekin koherentzia mantentzeko beharrari erantzuteko; *social media* direlakoek irakurle-komunitate bat eraikitzeke aukera errealak ematen dute, eta ingurune horretara egokitu behar dugu.
- Ikaskuntzaz eta informazioa eskuratzeko eta tratatzeko oinarriko gaitasunak erabiltzeaz harago joan behar du irakurketa-estrategiak, eta irakurtzeak herritarren bizikidetzan duen eragina berreskuratzeko ahaleginak egin behar ditu. Irakurketak transakzioa gauzatzeko gaitasuna ematen duela eta gainerakoen balioak, arauak eta jomugak zein diren jakiteko aukera ematen duela diogunez, irakurketa **bizikidetzarako** kanal dela azpimarratu behar du komunikazio-estrategiak.

Ardatz horiek zehazten dute zer eduki jaso behar dituen EAEIP zabaltzeko jarraituko dugun estrategiak. Komunikazio-eskema guztietan bezala, zer kontzeptu helarazi nahi ditugun zehaztu behar dugu, eta komunikatu beharreko gai bihurtuko dira horiek. Printzipio horiek interpretatzeko, zeharkako bi kontzeptu erabiliko ditugu, gramatikaren ikuspuntutik aditz bat eta subjektu bat izango dituen mezu bat eraikitzeke.

## IRAKURKETA

Irakurtzeko ekintza bera da aditza, baieztapen horrek bistakoa badirudi ere. Alabaina, EAEIPk irakurketari ematen dion definizioa dela eta, ez da kontzeptu sinplea, irakurtzeko ekintza bera faktore oso sendoa baita komunikatu beharreko edukiei eta gaiei dagokienez: irakurketa etorkizun handiko arma da. XXI. mendeko gizartea irakurketan oinarritzen da, informazioaren gizarte delakoak irakurketa-gaiak maneiatzen dituelako batez ere, eta arlo horretan gaitasunak dituzten herritarrak behar direlako.

- Irakurketa ez da gozamen estetikoko eta aisialdiko jarduera hutsa; ikasteko tresna bat da, eta, hortaz, euskal gizarteko giza kapitala txikitatik aberasteko bidea.

- Irakurtzea ezinbestekoa da gizarteak indar sortzailea izan dezan.
- Gizarte irakurle bat gizarte berritzailea da.

EAEIPren komunikazio-estrategiak irakurketaren kontzeptua behar du gizarteko herritarrei eta talde antolatuei egiten diegun gonbidapenaren edukia esplizituki helarazteko.

### **Irakurlea**

Benetako protagonista da, eta subjektua aditza bera baino askoz ere garrantzitsuagoa da proposamen honetan: EAEIP irakurleentzako plana da, irakurleak mobilizatzera bultzatzeko plana.

Garbi adierazi behar da euskal herritarrak direla aktibo nagusia, planaren protagonista eta sustatzaile diren heinean. Planaz jabetzeko gonbidapena luzatu behar diegu irakurleei, hori irakurketaren aldeko mobilizaziorako eskema bihur dadin.

Ikuspegi horretatik, paper garrantzitsua eman behar diogu euskal herritar bakoitzari irakurtzeko ekintzaren edukia definitzeko orduan, eta, horregatik, plana ez da agertu behar botere publikoek monopolizatutako ekimen gisa.

Azkenik, egungo irakurlea irakurle konektatua da. Planeko funtsezko bost ideietako batek dio XXI. mendeko irakurleek irakurketa-jarduera partekatzen dutela, eta, lehenengo aldiz, haien presentziak anonimo izateari utzi diola. *Social media* direlakoek sortutako komunikaziorako eta trukerako kanalei esker, irakurleak nor den adieraz dezake, eta zenbait bitarteko erabil ditzake irakurketei buruzko iritziak helarazteko, agindu-sistema bat abiarazteko eta egileekin harremanetan jartzeko.

Bi faktore horiek abiapuntu direla, komunikazio-estrategia bat eraiki dezakegu, kontzeptu edo indar-idea jakin batzuetan oinarritutakoa, plana euskal gizarteari aurkezten eta komunikazio-jarduera eta planaren garapena bateratzen lagunduko diguna.

## KOMUNIKAZIOKO KONTZEPTUAK

Honako ideia hauen inguruan antolatzen da komunikazio-estrategia:

1. Irakurketa, ikuspegi garaikidetik, funtsezko tresna da informazioaren gizartean moldatzeko.
2. Informazioaren eta jakintzaren gizartean adimena da lehengai nagusia eta baliotsuena. Irakurketa adimena lantzeko tresna da, eta adimena berrikuntza bihurtzeko eta berrikuntzarekin aberastasuna eta aurrerapena sortzeko aukera ematen du.
3. Krisialdi-garaian, berrikuntza-sektoretan kalitatezko enpleguak sortzeko gai izango da gizarte irakurle bat.

## KOMUNIKAZIOAREN MEZUA

EAEIPren oinarri diren ideiak bildu behar ditu komunikazio-estrategiaren mezuak. Ideia horiek ezartzeko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko irakurketaren errealitateari buruzko diagnostia eta elkarrekin lotutako beste aldagai sozioekonomiko eta kultural eta hezkuntza-aldagai batzuk. Oinarri horrekin, bi bektore batzen dituen indar-idea bat zehaztu dugu:

- Euskal egoeraren bektorea: lan- eta fabrika-tradizioa duen gizarte langile bat da, eta berregituratze-prozesu sakona bizi izan du industria astun tradizionala alde batera utzi eta berrikuntza teknologikoko sektoreei ekin eta zerbitzuen garrantzi erlatiboa handiagotzeko xedez.
- Mundu-irismena duen kanpo-bektorea: informazioaren gizarte bihurtzeko bide honetan, irakurmenak berebiziko garrantzia hartu du industria-sektore berritzaileenek eta hazteko aukera handienak dituztenek eskatzen dituzten trebetasunen artean.

Hori horrela, honako mezu hau zabaldu behar du komunikazio-estrategiak:

Irakurketa da XXI. mendeko Euskal Herrian enplegua eta aberastasuna sortzeko bitarteko egokiena, adimena lantzeko tresna delako, eta informazioaren gizarteko funtsezko lehengai delako adimen hori.

## KOMUNIKAZIOAREN DINAMIKA

Bi fase bereizitarako prestatu behar da plana ezartzeko komunikazio-prozesua:

- Ezarpen-fasea: plana abiarazi eta lehenengo urtean gauzatu beharreko jarduerak. Hasierako fase horretan, planak iritzi publikoarengana iritsi behar du neurri batean, arrakasta izatea nahi badugu.
- Garapen-fasea: hurrengo urteetan gauzatu diren eta planaren eragina handiagotzen lagunduko duten jarduerak. Fase horretan zehar, euskal gizartean tokiko jarduera deszentralizatuak zabaltzen lagundu behar du planak.

Ezarpen-fasean, bi dinamika sustatu behar dira:

- **Ezagutaraztea**

Hasieran, plana ezagutarazteko baliabideak erabili behar dira, eta, beraz, komunikabide orokorretara heldu behar dugu plana existitzen dela eta zer xede duen jakinarazteko (hurrengo paragrafoan landuko dugu alderdi hori).

Hortaz, ohiko komunikabideen laguntza izan behar dugu (telebistarena bereziki), eragina izateko aukera gehiago ematen dituztelako. Fase horretarako, planaren korporazio-irudi bat eduki beharko dugu.

- **Ezaugarriak ezartzea**

Lehenengo fase honetan mezuak ez du konplexua izan behar, euskal gizarteari plana existitzen dela jakinaraztea baita garrantzitsuena, baina, halere, plana zer den adierazi behar da ezinbestean. Irakurketaren eta irakurlearen kontzeptuak aurkeztu beharko ditugu, eta, ezaugarriak

adierazterakoan, planeko goiburua edo goiburuak hartuko ditugu oinarri, bai eta sail eskudunetako arduradunek komunikabideetan emango dituzten deskribapenak eta azalpenak ere.

Garapen-fasean ere bi dinamika sustatu behar dira:

- **Identifikazioa**

Lehen esan dugun eran, EAEIPk arrakasta izan dezan, irakurketaren aldeko mobilizazioa sortu behar da euskal gizartean. Horretarako, herritarrek, erakunde pribatuek eta herri-administrazioek identifikazioa sentitu behar dute parte-hartzea sustatuko duen planarekin.

- **Parte-hartzea**

EAEIPren ideiek zehazten dute plana, bai eta planaren xede den inguruneak ere; plana herritarren mobilizazio gisa exekutatu behar da ingurune horretan kultura eta hezkuntza sustatzeko tresna den heinean.

Hortaz, "dirigismoa" eta "ofizialismoa" saihestu behar ditu komunikazio estrategiak, eta herritarrak planarekin identifikatzeko dinamika bat eraiki behar du.

Herritarrek planarekin bat egin dezaten, gizarteak plana duintasunarekin, erabilgarritasunarekin, berrikuntzarekin eta antzeko balioekin lotzea lortu behar dugu.

## **PLANA HAUTEMATEKO BALIO NAGUSIAK ETA KOMUNIKAZIORAKO JARRAIBIDEAK**

Herritarrek EAEIPren gainean izango duten pertzepzioak eragin handia izango du planaren bilakaeran, ekimen honek herritarren, gizarte zibileko erakundeen eta beste herri-administrazio batzuen parte-hartzea lortu nahi duelako.

EAEIP hautemateko moduaren arabera, parte hartzeko jarrera handiagoa edo txikiagoa izango denez, honako alderdi hauek landu beharko ditugu:

- Gizarteak nola hautematen duen irakurtzeko ekintza bera.
- Pertzepzio hori osatzen duten ezaugarriak eta balioak.
- Ezaugarrien eta balioen artean, EAEIPrekin bat datozenak eta horren ikuspegiarekin koherentzia dutenak aurkitu beharko ditugu.

Erakunde espezializatuek, hala nola, German Sanchez Ruiperez Fundazioak, irakurketaren inguruko imaginario sozialen eta pertzepzioaren gainean azken aldian egindako ikerketek agerian utzi dute ezaugarri eta balio desberdinak direla nagusi zenbait adierazleren arabera, adibidez, adinaren, ikasketamailaren edo talde sozialaren arabera. Komunikazioari buruzko dokumentu batean ezin ditugu aztertu gai horren xehetasuneko lanketa batek aurkezten dituen ñabardura guztiak. Alabaina, orokorrean aplika daitezkeen kontzeptu batzuk aukera ditzakegu, eta horien arabera antolatu gure estrategia.

Irakurketaren inguruan biltzen diren estereotipo jakin batzuk oztopo dira EAEIP behar bezala gauzatzeko:

- **Irakurketa jarrera ez bizizalearekin lotzea.** Asko irakurtzen duen pertsonak gutxi bizi du. Gure kulturaren denbora luzez sustraituta egon diren estereotipoekin lotutako ideia da ("Beste bizitza batzuek betetzen da, baina ez da bizitzen", "Ez ditu ezagutzen ez kalea ez eta bizitza erreala ere"). Irakurle ez diren populazio-talde batzuekin egindako ikerketa batzuetan, irakurtzeak kalte fisikoak eragin ditzakeela ere esaten zuten, eta jarduera fisikoen eta osasungarrien kontrako gisa ikusten da irakurketa.
- **Irakurtzeak bakartu egiten gaituela eta ez sozializatzea eragiten duela pentsatzea** Banaka irakurtzen denez, bizitza sozializatuarekin bateraezina dela uste dute batzuek ("Bakarrik dago oso", "Ez du gustuko jendearekin egotea"). Oztopo hori oso sendoa da, aisialdiaz gozatzeko beste modu batzuk ez bezala, irakurri bakarka egiten baita, eta horrek bakardadea eta isolamendua areagotzen dituela uste baitute batzuek.



- **Irakurketa luxuzko eta alferrikako zaletasuna dela pentsatzea.** Irakurketa aisialdia zaletasun kultural batekin betetzeko jarduera dela uste dute batzuek, eta ez dela erabilgarria. Askotan zabaldu da honako estereotipo hau: etxeke bakardadean irakurtzen duen pertsona, luxuzko azalak irakurtzen haren liburutegi partikularrean. Askotan aipatzen da gehien irakurtzen dutenek ez daukatela lanik egin beharrik bizigaiak eskuratzeko (“Errenten kontura bizi da”, “Ez dauka lan egin beharrik” edo “Hori ez da oso nekatuta iristen etxera”).

Komunikazio-estrategiak estereotipo horiek indargabetu behar ditu. Horretarako, lehen aipatutako fundazioaren ikerketetan ezaugarri positibo gisa azaldutako balioak jaso beharko ditu diskurtsoak, EAEIPren ardatzekin bat datozenak:

Irakurketaren ezaugarri positibotzat jotzen dira garapen pertsonala, lanerako erabilgarritasuna, ebasioa eta norberaren duintasuna. Jarraian azalduko dugu nola sar ditzakegun balio horiek planaren arrazoibidean eta komunikazio-estrategian.

### **Ebasioa**

Aisialdiko denboran entretenitzearekin lotzen da irakurketa. Irakurleek eta ez irakurleek beste azpi-ezaugarri batzuk lotzen dituzte balio horrekin, eta horiek ere sar daitezke planaren ideietan modu zehatzagoan:

- Ikaskuntza ludikoa.
- Sormena lantzea.
- Tolerantzia areagotzea.
- Edonork irakurketaz gozatzeko aukera izatea.

### **Garapen pertsonala**

Irakurketa honakoetarako bitarteko nagusia -ia bakarra- dela pentsatzen da:

- Jakintza areagotzeko.
- Adimena trebatzeko.
- Norberarengan segurtasun handiagoa izateko.

## **Norberaren duintasuna**

Aurreko ezaugarriarekin estuki lotuta dago honako hau, baina zerikusi handiagoa du emozioekin, eta, beraz, arrazoiarengandik urrunago dago. Emozioekin lotuta dagoenez, irakurketaren inguruko imaginarioko ildo nagusiarekin lotuta dago zuzenean:

- Intelektual-itxura.

Ongi ulertu eta maneiatu behar da ezaugarri positibo horren eta oztopotzat jotzen diren beste ezaugarri batzuen -edo guztien- arteko lotura. Ezaugarri horrek, hasiera batean, EAEIPn garrantzi gutxi badu ere, eta anbibalentea bada ere, alderdi hori lantzea gomendatzen da, irakurketa hautemateko moduan eragin sozial handia duela ikusi baita. Balio hori komunikazio-estrategian sartzeko, planaren ideietan garbi zehaztutako beste balio positibo batzuekin lotu dezakegu.

## **Lanerako erabilgarritasuna**

Irakurketarekin lotutako balio horrek modu desberdinean funtzionatzen du jatorrizko talde sozialaren arabera; hau da, garrantzi handiagoa du errenta baxuenak dituzten taldeetan -etorkinak dudarik gabe- beste talde sozial batzuetan baino. Aipatutako azterketa horiek ziklo ekonomikoko garai hobeetan egin dira, eta uste dugu balio horrek askoz ere eragin handiagoa izango lukeela egungoaren moduko krisialdi-garaian (hori gertatzen da prestakuntzaren alderdi zehatzarekin). EAEIPren ardatz nagusiak balio horren gainean eragiten du hain zuzen ere, eta komunikazioko giltzarri izan behar du.

Lehen aipatutako oztopoak indargabetzeko, EAEIPko ideiak erabil ditzakegu, eta, zehazki, lanerako erabilgarri izatearen balioarekin lotu behar dugu irakurketa. Planaren xede nagusia da gizarte honek daukan lehengai izugarria modu optimoan funtzionatu araztea; izan ere, irakurketa da XXI. mendeko Euskal Herrian enplegua eta aberastasuna sortzeko bitarteko egokiena, adimena lantzeko tresna delako, eta informazioaren gizarteko funtsezko lehengai delako adimen hori.

Ikuspegi horretatik, honako balio hauek helarazi behar ditugu:

- Ez da banakako ekintza bat, sozialki, taldean, irakurle batzuk beste batzuekin lotuz gauzatzen den aktibo bat baizik.

- Pertsonen, enpresen eta, oro har, gizarteen bizitzetan sartzen da, irakurtzeko ekintza ez delako irakurleak mundua ahazteko etena, mundua hobeki ezagutzeko eta ulertzeko jarduna baizik.
- Gutxiengo batzuei zuzendutako luxuzko jarduera izan beharrean, guztien eskura dagoen jarduera da irakurketako eta hezkuntzako zerbitzu publikoei esker. Gainera, irakurketak ematen dituen ahalmenen bidez, etekin pertsonal eta kolektiboa aterako dugu informazioaren gizarte honetan.

Haien kargura haurrak dituzten gurasoen egoera ere kontuan hartu behar da. Askok uste dute honako jarduera hauen bidez **nor bere buruarekin gustura sentituko dela** (guraso onak direla pentsatzea):

- Erakusten ikastea: irakurtzea eta beste batzuei prestakuntza emateko gai izateko trebatzea.
- Ikaskuntza-prozesuan laguntza ematea haurrei.

## KOMUNIKAZIORAKO JARRAIBIDE OPERATIBOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa Plana lantzeko ideiak zehaztu, diagnosi estrategikoa egin eta jarduera-ildoak proposatu ostean, gomendio operatibo batzuk gehituko dizkiogu orientazio estrategikoari.

1. **Komunikazioaren kudeaketa ez da oinarrituko publizitate-kanpaina batean.** Kanpaina hori garrantzitsua izan daiteke lehenengo fasean ospea lortzeko, baina ekintza-ildo bakoitza gauzatzean oinarrituko da komunikazioa.
2. Meziek **koherentzia** izan behar dute strategiaren atalean azaldutako **ideiekin**, baina doktrina bihurtu gabe, parte hartzea erabaki kanpoko lankideen iritzi berriak ere **sartu ahal izateko** esparru sektorialetik (esaterako: hezkuntza-esparrua, lurralde batekoa, adin-tarte bat).

3. Ahal den neurri handieneran **mugatu behar da erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritza) presentzia**, horiei protagonismo handiegia emanaz gero, mezu guztiek kutsu ofiziala izango dutelako, eta jendeak ez parte hartzea eragin dezakeelako.
4. Irakurleak anonimo izateari utzi diola esan dugunez, **komunikazioan ikusgai egingo ditugu irakurleak sistematikoki eta behin eta berriz**. Irakurleen iritziak azaldu beharko dira, bai euskal gizartean erreferente diren pertsonen bidez (kirolariak, aktoreak, musikariak...), "izan nahi genukeenarekin" lotutako emozioak sortzen dituztelako, bai eta pertsona anonimoen bidez ere, identifikazio-sentimendua eragiten dutelako.
5. Ez da egia jendeak gero eta gutxiago irakurtzen duenik (gutziz kontrakoa), eta hori egia balitz ere, ez da komeni komunikazioa gaitzespenean, kezkan edo nostalgian oinarritzea, inork ez baitu bere burua galtzaileekin lotzen. Euskal Autonomia Erkidegoa lehenengo postuetan dago irakurketa-indizeei dagokienez, beraz, **EAEk irakurketa-arloan duen lidergoa nabarmendu** behar da, horrek eragingo baitu jendeak planarekin bat egitea. EAEIPri dagokionez, xedea ez da gero eta gehiago irakurtzea soilik, are garrantzitsuagoa da hobeki irakurtzea eta irakurketaren bidez balioa sortzea.
6. **Aginduzko mezuak edo mezu paternalistak saihestu behar dira.**
7. Komunikazio-helburuen lehentasuna ezartzerakoan, kontuan hartu behar da **garrantzitsuagoa dela planaren ardatz diren ideiak gizarteari helaraztea eta hedatzea planaren publizitatea egitea baino.**
8. **Planak, horren korporazio-irudiak eta horren titulartasunak jabetza publikokoak izan behar lukete, eta ez lirateke Eusko Jaurlaritzarekin soilik lotu behar.** Ildo horretatik, kalitate-kontrola pasatzen duten eta planean sartzen diren jarduera guztiek eduki behar lukete logotipoa erabiltzeko baimena, horiek osatuko baitute irakurketaren aldeko mobilizazioa euskal gizartean.

9. **EITB erreferentziazko komunikabidea izango da hasieran,** Kultura Sailarekiko harremanari esker.
  
10. **Komunikabide pribatuen laguntza lortu behar da ezinbestean, sektoreak bizi duen krisialdi egoeran dugun interes komunean oinarritutako komunikazioa gauzatzeko.**
  
11. **Irratiekin eta tokiko prentsa idatziarekin** lan egin behar dugu, jarduera ugari udalerrietan eta auzoetan hezurmamituko direlako; horrela, planak kapilaritatea hartuko du.